

Nafarkaria

Nafarrorako gehigarria / Ostirala, 1992ko irailak 25 / II. urtea / 43. zenbakia

Metropoli forala




FELIPE RIUS

Ez dakit arteak gaur egun errealitatea aldatzeko balio ahal izan duen ala ez, baina egunerokotasunetik alde egiten laguntzen digu eta, beraz, gauzak ikusteko eta interpretatzeko modu asko daudenez, askok 'beren' errealitatea eraldatu dela pentsatu dezakete arte lan baten aurrean.

Zine areto batean sarturik pasatu ditut azken hamar egun hauek eta, egia esan, ez dakit ze arraio gertatu den munduan. Egunkariak egunero erosi arren, zinemaldiari buruzko berriak besterik ez nituen irakurtzen eta nire inguruko lagunek pelikulez baino ez zuten hitz egiten. Badakit bitartean Sarajevon hostiaka zebiltzala, pezeta aldapan behera zihoala eta politikoak Europaz ari zirela ixildu gabe, baina hori ez zen niretzat esistitzen. Horregatik, gero eta konbentzituago nago arteak —eta exajeratzen ari naiz, aurtengo pelikula gehienei ezin bait zaie izen hori eman— batez ere itotzen gaituen mundu batetik alde egiteko balio duela. Agian kasu batzutan zerbait irauli dezake, baina gehienetan itsuskeriak menderatutako inguru bati edertasun pixka bat aportatzen dio, eta hori ez da gutxi. Zenbaitetan, gainera, erreflexiora bultzatzen gaitu, eta orduan arriskua somatzen dute agintariek.

Istorio batzuk gaizki ateratzen zaizkigunean, agobiatzen garenean, etxean sartzen gara eta liburu zaharrak hartzen ditugu, zinearen aterpea bilatzen dugu eta eszenatoki batera hurbiltzen gara kitarren musikak gure burumuinaren bazter guztiak betetzen dituen arte.

Nolabait drogaturik ibili gara egun hauetan Donostian, baina inork ez dit oraindik esan ihesbide hori artifiziala edo naturala den.



OSKAR MONTERO


Euskal enbaxadore Venezuelan

Pablo Mandazene —Anai Gines—, joan den abuztuan jaso zuen Huelvan La Rabi-dako Unibertsitate Iberoamerikarrak aurten eman duen ekogarapenari saria. Garraldan jaiotako laurogei urteko aetza hau ez da aski ezaguna Nafarroan, baina Venezuelan emandako berrogeitamar urteetan egin duen lanarekin hango gizon ezagun eta handienetakoa

izatera heldu da. Zientzi arloan aitzindari izan zen bertan, eta berak sortutako La Salle fundazioak hamar mila ikasle eta izugarrizko ospea dauka Karibeko lurralde aberats horretan. Egunotan Garraldan dago, bere jaioterriak eta Euskaria erakundeak egin behar dioten omenaldiaren zain. Ez bait du galdu urte guztiotan euskaldun izaera.

Barnean

IRRATIA



Txantrearrek luze gabe auzoaren berri izango dute/vii

KOMIKIA



'Napartheid', Nafarroatik Euskal Herrira umorez/viii

Gure aukerak

Elorzko ingurua

ERAKUSKETAK



M^a Isabel Ripa pintorearen erakusketa ikusgai dago Iruñean datorren irailaren 29a arte, Nafarroa Zentru Sozial eta Kulturalan, Udalak antolatutik. Hau da artista honek egiten duen lehenengo erakusketa, eta bertan bere lan gehienak aurkeztu ditu.

'Artistak Bideetan' izeneko erakusketa antolatu du Garesko Udalak eta 'Haize Berri' Nafarroa Behereko Kultur Etxeak. Erakusketa ikusgai egongo da datorren urriaren 5a arte, Gares herrian. Erakusketa lan egunetan arratsaldean egongo da zabalik, zazpietatik zortzi t'erdietara, eta jai egunetan goizez, hamabieta-tik ordubietara.

Antonio Caballero De la Guerra artistaren erakusketa ikusgai dago Tafallako Kultur Patronatoaren aretoan. Argazkilari honek 'Giro arabiarak' lemapean aurkeztu ditu bere lanak, eta datorren asteazkenean arte iraungo du, irailak 30, hain zuzen.

IKASTAROAK



Jugoslaviar Gerrateak izeneko ikastaroa eskainiko du IPES Elkartek irailaren 28, 29, 30 eta urriaren 1ean, arratsaldeko zazpietatik bederatzietara bitartean. Hizlariak Javier Aisa kazetaria eta Javier Mateo historialaria

ERRAN DUTE

Zezenketetan, futboleak bezala, berna onak behar dira».

Antonio Robles
Banderilleroa

«Iruñeko Ingurubidearen kostuak ez dauka justifikaziorik».

Javier Tuñón
Kontu Ganbararen burua

«San Fermin bezalako festak egiteak ez dauka zentzu handirik».

Jaiver Aiesa
Iruñeko EAKo zinegotzia

«Antsoain bera kriston arazoa da».

Alfredo Garcia
Alkatea

Elorzko ingurua hartuko dugu asteburu honetan ibilbide lasaia egiteko, hiriburutik gertu, baina oso paisai eta ingurugiro interesgarriak ikusi ahal izateko. Zitu landen artean, Noainen parean ezkerrean Taxoaren mendizerra guztia ikusteko aukera dago. Apropoza txirrindulaz egiteko. Halaber, Alaizko mendizerra, Erreniegako mendizerra eta Moreako aintzira ikusi ahal izango ditugu, azken hau Subitza eta Arlegiren artean.

Noainen burutu zen Nafarroa berreskuratzeko azkenotako bataila, 1521ko ekainaren 30an. Bertan ere ikus dezakegu bere ubidea, XVIII mendekoa, eta oraindik gaur egun oso egoera onean dagoena. Ventura Rodriguez arkitekto famatuak egindakoa, Erreniegaren magalean dagoen Subitzako iturburutik sortzen zen ura Iruñeko hornidurako erabiltzen zen, eta bere garaian izugarritzko lana izan zen: 16,5 kilometro; larogitamazazpi arku eta 1.245 metroko zabalera.

izango dira. Matrikulak 2.000 pezetako prezioa du, langabetuak ezik, hauek 1.000 pezetan izango bait dute. Elkarteko bazkideek, berriz, dohainik izango dute.

Autoestima eta defentsa pertsonaleko ikastaroak antolatu ditu Andrea emakumearen atentziorako zentruak. Ikastaro hauek



Artetako iturburuaren hustiaketa eta Nafarroako autopistaren lanek erabat eta betirako hondatu zuten zati garrantzitsu bat.

Beriainen, bestela, bertako Po-

tasak nagusitu dira herrian, eta Subitzan ikustekoa da bertan dagoen jauregia. XVII mendekoa, ongi kontserbaturik dago, eta Radas familiakoa izan zen behialan.

emakumei zuzendurik daude, eta bertan atal desberdinak aztertzen dira. Suskripzioak 1.000 pezetako balioa du, eta klaseak urrian hasiko dira.

ZINEMA



'El principe de las mareas'

izeneko pelikula eskainiko dute datorren ostegunean, urriak 1, Tafallako Español zineman, bertako Kultur Patronatoak antolatutik. Nick Nolte eta Gerard Depardieu artista famatuak zikloa egiten ari dira aste hauetan, eta aipatutako filmean aktore amerikarra ikusteko aukera dago. Sarrerak 175 pezetan dituzte salgai.

ASTEKO PERTSONAIK

J. Angel Ruiz 'Cholo'



Osasunako jokalaria

Oscar Navascues



Gaztea

Alfredo Jaime



Iruñeko alkatea

Aurrelari burgaldarrak Job Sainduaren pazientzia duela esatea lotsagabekeria irudituko zaio norbaiti, baina gutxiago esatea ez litzateke egia izango. Osasun bizi duen egoera ez da profesional batek merezi duena. Haste hastetik, aulkixtoan, Zinganda eta Urbaren atzetik. Larraizargak alde egin zuenean, Aguilaren atzetik, eta orain Koseckiri begira. Bitartean, ateratzen den ja bakoitzean golen bat sartzen du, eta joku onez gainera. Ez du gehiegi borrokatuko, Zabalzaren ustetan, baina maila handiko jokalaria honek zerbait gehiago mereziko luke.

Uharteko 19 urteko gazteak soldadutzaren zentzugabekeria plazaratu du berriro ere aste honetan. Depresioak eta bizkar hezurreko minek jota, koarteleko egoera jasanezinean zela adierazi zion familiari, eta gurasoek bila joateko asmoa azaldu zuten komunikabideen aurrean egindako adierazpenetan. Joan den larunbatean, taxia hartu ondoren, hegazkinez joan zen Melillatik Malagara, eta han zituen zain abokatua eta familiarrak. Ondoren adierazi zuenez, bere burua hiltzeko aukera ere ez zuen baztertu, eta han bizitako egunik «txarrena» izan dituela esan zuen.

Berriro ere, Alfredo Jaime Iruñeko alkatea azaldu da zaitxo honetan, ez berebiziko tema diogulako, Iruñeko alkateak astero agertzeko meritua egiten dituelako baizik. Aste honetan, bitan izan da notizia, San Fermin txikitoko zezenketan, eta, okupen epailetan. Zezenplazan zezenketaren buruaren lana egin zuen Jaimek, horretarako inolako arrazoirik ez izan arren, eta zapi-txoa atera zuen bere kabuz, bigarren belarria emateko. Okupen epailetan Lore Etxea okupaturik zegoenik «ez zekiela» adierazi zuen, Iruñea osoak horren berri bazuen ere. Jaime, beti Jaime.

'La ventana indiscreta' izeneko filma ikusteko aukera dago bihar, irailak 26, Alde Zaharreko Auzokideen Elkarteak, Aldapa kalean. Pelikula arratsaldeko zazpietan botako dute. Era berean, gaur arratsaldean, ordu berean, 'Granujas a todo ritmo' izeneko pelikula botako dute, leku berean, San Fermin txikitoren jaiak izan zirela eta antolatu duten Aste Kulturalaren barruan.

IBILALDIA



Larrau mendatea, Ori eta Muskilda mendiak zeharkatuko dituen ibilaldia antolatu du Iruñeko Nafarroa Kirol Taldeak, datorren igandeko, irailak 27. Interesaturik daudenak, talde honen egoitzan apuntatu daitezke, Jarauta kalean, arratsaldeko zazpietatik bederatzietara.

MUSIKA



Balerdi-Balerdi talde iruindarra Erasoko plazan arituko da bihar, hilak 26, gaueko hamaiketarik aurrera. Kontzertuaren ostean dantzaldia izanen da leku berean.

Julian Gaiarre IV. kantu txapelketaren lehen sailkapen frogarunbat eta igandean jokatu da Iruñeko Gaiarre antzokian.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara.... Xinguli Mangulu haurrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... Karakola segi hola gazteendako saioa.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenan FMn 21.00etatik 22.00etara.... Gautxori irratiaio musikala. Narrazioak.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.


'Auzofestak' Korellan

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Askotan hiru egunetako jaiak betetzeko eta prestatzeko arazo franko izaten dituzte Nafarroako herri askotan, uda osoan zehar 'hator festara' sail honetan antze-man ahal izan dugunaren arabera. Jendeak ondo pasatzeko gogorik bai baina lan egiteko animo gehiegirik ez omen dauka, eta ohizko berbenak eta argi-soinuak baino ez duten egitarauz beteta izaten da uda osoa.

Badira beste batzuk, ordea, auzolanean egindakoak, 'auzofestak', jendearen aldetik lanarako gogo bereziak erakusten dituztenak, eta horren adibide garbia dira Korellakoak. Zortzi egunetan zehar, zortzi!, herri gutxitan izango da Erriberako hiri garrantzitsu honetan topatu dugun bezalako egitarau trinko eta animosorik, eta jende askoren partaidetzarekin, hori bai. Parte hartu ere, festetako batzordean bertako lau peñen ordezkariak hartzen bait dute parte, baina horretaz gain, hortik kanpoko taldeek ere badute zer antolatu eta zer esan festetan.

Jaiak izaten duten partaidetza handiaz gain, zezenak dira, dudarik gabe, jaietako egitarauaren protagonista nagusiak. Bi zezenketak, bi zekorketak —bat pikatua, atzo ostegunez izan zena— sei entzierro zekorrek, haurrendako entzierroak egunero, zezen-suzkoa bi egunetan, errekortatzaileak egun batean, zezenketetan Nafarroan aurki daitekeen eskaintzarik handiena



dauka Korellak egunotan. Askorendako paradisua.

Baina oso zezenzalea ez den festazaleak ez dauka zertan aspertu beharrik, horretaz gain, argi-soinuek, berbenek eta musikak betetzen bait dute eguneroko jaien egitaraua.

Taldeen partaidetza da, esan bezala, festa hauek nabarmen-tzen dutena. Lau peña daude Korellan: El Tonel, nagusia eta famatuena, duela gutxi nabar-

Zortzi egunetan herri gutxitan izango da Erriberako honetan bezalako egitarau trinko eta animosorik, eta jende askoren partaidetzarekin gainera.

mendu bait zuten Ardoaren kofradian; Gracurris, La Chispa eta Gaztena, eta denen artean 'Peñen Eguna' antolatu zuten atzo, zekorketa pikatua eta guzti. Horretarako eurek zezenplazaren enpresariarekin zuzenean egin zituzten gestioak. Horretaz gain, eta festetarako batzordean egonda, peña bakoitzak, bere aldetik, beste ekitaldiak antolatzen dituzte, eta El Tonelek 'Ardoaren feria' antolatu du, Nafarroan gaur

egun egiten den bakarra. Gracurris-koek, berriaz, artisau feria aterako dute kalera.

Halaber, Gurasoen elkarteak 'Haurren eguna' antolatu du, eta Zaharren Lagunen Elkarteak, 'Aitonen Eguna'. Joten lehiaketa, txotxongiloen antzerkia —hiru egunetan—, eta Club Deportivo Corella taldeak antolatutako bi futbol partiduekin beteko dira asteazkenean, hilak 30, amaituko diren festak.

San Migelen jeitsiera Noainen

P.U. / IRUÑEA

Noaingo festak gaur, ostirala, hasiko dira, arratsaldeko seietan botako den txupinazoarekin. Ondoren, Elortzibarreko hiri honetako festen ekitaldirik nagusienetakoa izango da, aingeararen jeitsiera-

San Migelen irudiaren jaietsieraren ondotik, futbito partiduak, zezensuzkoa, eta dantzaldia izango dira gaur.

rekin. San Migelen irudia hiriaren goiko parteko Eliza Zaharrean dago urtean zehar, baina festak bitartean parrokiara jaisten dute noaindarrak, prozesioan. San Migel egunean, hau da, heldu den asteartean, berriro igoko dute prozesioan. Jaietsieraren ondotik, eta gaur bertan, futbito partiduak, dantzaldia, zezensuzkoa eta dantzaldia berriro izango dira.

Larunbatean, argi-soinuak goizean goizetik, txarangak eta

erraldoi eta buruhandien konpartsak, bertoko dantza taldeen exhibizioa eta plater tiroketarekin hasiko da eguna. Ondoren, betizuak, zesta partiduak, Drindots musika taldearekin berbenak eta zezensuzkoa.

Igandean, erraldoien kontzentrazioa izango da eguerdian, Noaingoen X. urteurrena dela eta. Bertara sei konpartsa azalduko dira: Azagra, Barañain, Berriozar, Olazti, San Adrian eta Azkoiengoak.

Egun berean, marmitako lehiaketa dago iragarrita, eta ondoren, txistulariak eta gaiteroekin dantzaldia. Asteartean, azken eguna, herri kirola izango da ikusgai. Bitartean, txirrindulari lasterketa, jubenil mailako Nafarroako talde gehien partaidetzarekin.

Udabe-Beramendi, bi herri, kontzeju bakar bat, eta bi festa, bakoitza bere aldetik, «hori bai». «Elkarrekin egiten ez dugun gauza bakarra», adierazi digu beramendiar batek. Udabearrek heldu den asteburuan ospatuko dituzte euren jaiak, Errosarioko Ama Birjinaren omenez egiten direnak, eta asteburu honetan dagozkie beraienak beramendiarrei. Larogei bizilagunen kontzeju honetan, beste hainbestetan gertatzen den bezala, bertako gazteek osatu dute egitaraua, gaur hasi eta igandera arte iraungo duena.

Jaien hasierako itxafueroak, gaur ostirala, arratsalde partean, izango dira, eta ondoren herri afaria izango dute beramendiarrek bertako plazan. Ondoren, dantzaldia, eta bakoitzak nahi duena.

Bihar larunbata, argi-soinuak entzun ahal izango dira goizean goiz, eta ondoren, goizez, puxka bila arituko dira bertako gazteak, bildutakoarekin bazkaria egin

Beramendin, Udabe gabe

IRUÑEA



Basaburua.

ahal izateko. Larunbat arratsaldez, mus txapelketa izango da, arratsaldeko seietatik aurrera.


Herri kirola igande eguerdian izango da, eta bertan Basaburuko talde gehienak arituko dira

lehian, inguruko beste herrietako festetan egin den bezalaxe. Sokatiran eta trontzan arituko dira, baina azken hau, «egongo den martxaren arabera», antolatzaile batek azaldu zenez.



Pablo Mandazen: Venezuelako gizon handia

PABLO MANDAZEN



Pablo Mandazen, Garraldako bere etxearen aurrean.

OSKAR MONTERO

A. BARANDIARAN / GARRALDA

Anai Ginesek joan den abuztuaren 27an jaso zuen 'Ekogarapena' arloan egindako lanari La Rabidako (Huelva) Unibertsitate Iberoamerikarrak eman zuen saria. Sari honetan, ekologia, gizarte eta garapenaren arteko orekari eusteko Espainia eta Iberoamerika osoko pertsonaia, fundazio, eta lanak ziren lehiakide, eta bertan garraldar honek Venezuela aldera egindako lanari merezimendu osoko aipamena egin zitzaion.

Eta hau ez da zerrenda luze baten azken kapitulua baino. Pablo Mandazen, Anai Gines, pertsonaia franko ezaguna bait da Venezuelako. Esku hutsik duela ia hirurogei urte heldu bazen ere, egun hamar mila ikasle biltzen dituzten zenbait ikastetxe, eta izugarritzko lana zientzia eta garapenaren arloan dauka egina. Nafar unibertsal bat.

Pablo Mandazen 1912ko uztailearen 26an jaio zen Ariben (Aezkoa), baina Garralda du jaioterria, hara joan bait zen jaio eta hurrengo egunean. Hamasei urterekin La Sallen sartu zen, eta Bartzelonan amaitu zituen ikasketak. Hogei urtekin bazekien Amerikara joango zela, bere lana burutzera, eta lehendabiziz Kolonbian ibili bazen ere, 1939an Caracasera heldu zen.

Hara gerratik etorritako euskal errefuxiatu frankorekin heldu

Garraldako venezuelar handia

Laurogei urteko garraldar hau Nafarroan oso ezaguna ez bada ere, azken berrogei urteetan Venezuelako pertsonaia garrantzitsuenetakoa izan da zientzi eta hezkuntza arloetan. La Salle fundazioaren

sortzailea, egun hamar mila ikasle eta enpresa eta ikerketa zentro frankoren arima da, eta bertakoen onespene osoa dauka egindako lanari esker. Venezuelarra izateraino, euskaldun izana bihotzean badarama ere.

zen, eta haien kontrako giro gorraz aparte, miseria eta hondatuta zegoen herria topatu zuen Ginesek. Juan Vicente Gomez jeneralaren diktaduratik atera berria, Venezuelako nahastan hasiak ziren petrolioaren garapen basatia eta alde askoren baztertzeari, horrek zekartzan akulturalizazioa eta arazo sozialekin.

INGURUGIROAREN ALDEKO APUSTUA

Giro honetan, Anai Ginesek Sociedad de Ciencias Naturales La Salle sortu zuen 1940an, heldu eta hiru hilabetera. Elkarte honen ezaugarria, haste hastetik, ingurugiroa ezagutzeko egin zuen apustua izan zen. «Venezuela osoa zeharkatu genuen, goitik behera, zuhaitzak, txoriak eta begetazio guztia aztertzeke». Baina arlo zientifikoa berehala gairatu zuten elkarteko partai-

deek, ingurugiroa ezagutzen zuten neurrian. «Marjinalizazio asko topatu genuen —azaldu du Mandazek— eta herrietako gazte askok petrolioaren ustiatzeko enpresetara joan behar izaten zuten, kultura eta bizimodua erabat berri batera».

Hortik atera ziren ondoren La Salle fundazioa izango zenaren irizpide nagusiak. «Ohartu nintzen egoera hau aldatzeko lehendabiziz ingurugiroa ezagutu beharra zegoela, eta ikerketan jende asko sartu genuen, aldearen benetako potentziala ezagutu ahal izateko». Margarita Irlan hasi ziren, orain dela 1958an urte, bertan zeuden baliabide izugarriak ezagutzeko. «Ongi aztertu genuen aldea, eta ikusi ahal izan genuenez, urteko 500.000 tona sardina atera zitekeen. Horrekin bertako biztanleek handik ez ateratzeko aukera bazuten, baina ez

zeuden prestaturik baliabide horiek ustiatzeko». Hortik sortu zen bigarren urratsa, hau da teknikak ikasteko ikastetxea sortzea.

MARGARITA IRLAN AITZINDARIA

Horrela, 1962an, Arrantza Ikastetxea sortu zen Margaritan bertan, bertako arrantzaleen semei itsasontzien teknikari eta mekanikoen hezkuntza emateko. Anai Ginesen lehendabiziko ikastetxea izan zen hura, baina urteren poderioz, beste hainbeste sortuko zituen, hainbat aldetan eta ezaugarri oso bestelakoekin. Ondoren, Guayan 1968an sortu zen kanpus berri bat, teknika-industria arloan, eta 1975ean, San Carlosen, beste bat, nekazaritza arloa lantzeko. 1986an, Tumeremon beste kanpus berri bat eratu zuen fundazioak, meagintza eta basoen ustiatutzak arloetan lan egiteko.

HAMAR MILA IKASLE

Lan izugarri honi esker, hamar mila ikasle inguru daude orain La Salle fundazioak dituen ikastetxetan, eta ikasketak dohainik dira, Venezuelako Gobernuak % 70 inguru ordaintzen bait du. «Orain —azaldu du Anai Ginesek— bertako biztanlea bertan gelditzen da, bere herriak ematen duenaz bizitzeko gaitasuna duelako».

Egun, fundazioa zeharo sendotuta, inoiz baino gehiago erreparatzen zaio gizarteari. «Fundazioa gizartera begira dago, ezereen aurretik. Aldea aurrera atera nahi dugu, eta horretarako ekimenik duen jendea nahi dugu, horiek biderkatzen bait dute lana. Horregatik, orain, El Llanon, kooperatibak sortu nahi ditugu, eta fundazioak ere laguntza ematen die gure eskoletatik ateratzen direnei».

Fundazioaren etorkizunari buruz baikor da garraldar txiki hau, bere laurogei urterekin izugarritzko sasoia eta buru argia duena.

Orain hasi berriak dira Caracastetik gertu egongo den Caribeko La Salle Unibertsitatearen lanak, eta fundazioak tarte politiko guztien eta gizartearen onespene bereganatuta dauka.

Anai Gines, Garraldako omenaldiaren ondotik, bertara itzuli-ko da, bere herria bihotzean, baina bere jendearekin.



Pablo Mandazen: Venezuelako gizon handia

«Venezuelako aurkikuntza berria»

A.B. / IRUNEA

Anai Ginesen lana azken urteotan La Salle fundazioaren adar guztiak zuzentzera eta presidente lanak betetzera zuzendu bada ere, Venezuelen emandako lehendabiziko urteak oso bestelakoak izan ziren. 1939an heldu zen Caracasera, hogeitamar urteko diktadura baten ondoren lur jota zegoen lurraldera. Zientzizko peto-petoa, Sociedad de Ciencias Naturales La Salle eratu zuen 1940an, eta handik aurrera, ezarian ezarian, hasi ziren martxan bere adar guztiak, egun Venezuelako lurralde osoan dauzkan zentroak osatu arte.

Zientzi arloko bere lana garrantzi handikoa izan da Hego Amerikako estatu aberats horretan, eta horren lekuko dira urte guzti hauetan jasotako sari eta onespren publikoak. Baina garrantzitsuenak ikerketa guzti horiek giza arloramatea izan da, bere lana ongi ezagutu dutenen

Ez zen gelditu zientzia hutsean, baizik eta ikasitakoari probetxua ateratzeko, beti bertakoen onerako.

arabera. Ez zen gelditu zientzia hutsean, baizik eta ikasitakoari probetxua ateratzeko, beti bertakoen onerako.

Berak osatutako elkarteak 1954ean argitaratu zuen Los Roques eta La Orchila izeneko artxipelagoi buruzko ikerketa, ordura arte egindako lanik sendoen, eta hartako ikerketa zientifi-

koen Sari Nazionala eskuratu zuen. Orduan, adituek ziotenez, elkarrekin Venezuelako elkarte zientifikoaren aitzindaria zen, eta «Venezuelaren aurkikuntza berriaren sortzaileak» zirela adierazi zen orduan.

Pablo Mandazenen garrantzia, era berean, gero eta handiagoa zen, eta 1968an Arrantzarako Batzorde Nazionalako kidea izendatu zuten, eta 1974ean Venezuelako ordezkari lana bete zuten NBEk itsasoari buruz antolatutako jardunaldietan. Halaber, erakunde zientifiko frankoko partaide egin zuten denboraren poderioz, eta horien artean



Ikerketa lanetan Venezuela osoa zeharkatu zuen Anai Ginesek.

azpimarratzekoak dira American Academy of Arts and Sciences, Suitzako International Union for Conservation of Nature, British Ornithologists' Club, eta American Association for the Advancement of Sciences.

1961ean, bestalde, Instituto Caribe de Antropología y Sociología—ICAS—osatu zuten, bertako etnia eta kulturen normalizatzeko. Honekin batera

'Antropologica' izeneko aldizkaria sortu zuen, eta hor argitaratu ziren institutuak egindako ikerketa eta lan guztiak. Bitartean, Cariben bizi diren kulturen hauen garapenerako zentroa sortu zuen fundazioak, Erebaton izeneko ibaiertzetan.

1979an Cubagua irlaren aurrean ur azpitik elkarteak egindako lanean Jacques Cousteau frantziar famatuaren interesa piztu

zuten. Ildo beretik, 1980an Orsotom Frantziako enpresa publikoarekin batera Venezuelako ikerkuntza hidroakustika burutu zen.

Prioiektu anitzetan sartuta, berak duela berrogeitamar urte sortutako taldea egun Venezuelako enpresarik garrantzitsuenetakoa da, ez arlo ekonomikoan, baizik eta bertako gizartearen garapenean izan duen eraginagatik.

Euskal enbaxadorea

A.B. / GARRALDA

Venezuelan emandako urte guzti hauen ondorioz bertakotzat du bere burua, baina jatorriarekin lotura, ez du, inondik inora, eten: «Han beti esaten dut ni euskalduna naizela, edonoz eta edozer gertatuta ere. Eta Venezuelarra naiz, baina nere jatorria hemen dago, Euskal Herrian». Han lortutako ospe eta eragin izugarriak bertaraino azaldu diren euskaldunei laguntza emateko aukera eskeini dio, eta ezinbesteko erreferentzia da errefuxiatu eta abarrendako.

Iaz Hegoamerikan zeuden euskal errefuxiatuekin izan ziren arazoak medio, Venezuelako presidentek afaldu zuen Pablo Mandazenekin, kritikak nolabait isiltzeko, eta gustu handiz gogoratzen du Carlos Garaikoetxeak lehendakaria zela hara egindako bisita. «Harrera ia ofiziala egin genion La Sallen —dio barrezka—, eta gero bisitaldiaren memorian eta guzti agertu zen. Orduan izan nintzen lehendabiziko aldiz Espainiako enbaxadan».

Eusko Jaurlaritzarekin ere harreman ofizialak izan ditu behin baino gehiagotan, eta duela

gutxi, Erakunde Ez Ofizialaren bulegoaren bidez, arrantzan ikasketerako tresneria eskuratu zuen Jaurlaritzatik. «Hemen egon naizen bitartean —azaldu du— itsasuntziren bat eskatzeko

Garrantzi handiko pertsonaia Venezuelen, ez da horrelakorik gertatzen Euskal Herrian, baina Euskaria taldeak, Aezkoako Batzarrek eta Garraldako Udalak omenaldia egingo diote heldu den urriaren 4ean, igandea, Garraldan.

asmoa ere banuen, baina ez dut astirik izan». Venezuelen garrantzi handiko pertsonaia, ez da horrelakorik gertatu Euskal Herrian, lan isila eta ezkutua egin

duelako, baina Euskaria taldea, Aezkoako Batzarrea eta Garraldako Udalak omenaldia egingo diote heldu den urriaren 4ean, igandea, Garraldan bertan. Omenaldira gonbidatuak daude EAJ, EA eta HBko buruzagiak, Nafarroa eta Euskal Autonomi Elkarteak, eta erakunde sozial zein kulturalen partaideak, berarekin Venezuelen edota Euskal Herrian harremana izan dutenekin batera.

Xabier Berruezo abokatua eta Nafarroan Euskariaren partaide denak arlo zientifikoan egindako lana baino, giza arlokoan egindakoa omendu nahi dutela dio, «Venezuelan emandako ia hirurogei urte hauetan ez bait du galdutako euskalduna izatearen kontzientzia, eta izugarritzko laguntza eskeini dielako betidanik haraino joandako euskaldun guztiei, edozein pentsamendu politikotako partaide izanda ere».

Omenaldia eguerdi aldera hasiko da, eta bertan, Aezkoako Batzarrek eta Garraldako Udalak bere etxearen aitzinaldean paratuko duten oroigarria aurkeztuko da. Harrera ofiziala egingo zaio, eta Euskariaren ohorezko bazkidea izendatuko dute.



Sari bat jasotzen Carlos Andres Perez presidentearen eskutik, 1978an.

Gazteendako Zokoa

Euli-txori beltza
Ficedula hypoleuca
 Iparraldean bereziki
 Ez oso ugaria
 Eulijalea



BASAJAUN

Orain dela hamar urte bota ziren Ipar Atlantikoan azken hondakin erradioaktiboak. 1983. urtean, otsailan, eta ekologistek presinatuta, ekintza hauek geldiarazteko luzapena lortu zen. Geldialdi honek berritze batzuk izan ditu, baina orain arte txosten bat egiten zen bitartean iraun du. Txosten hau bukatu dutenez, garbi dago aurten luzapena berritu beharko litzatekeela, eta isurpen hauek erraz hasi litezke berriro ere.

Hondakin hauek, Greenpeace talde ekologistaren ustetan, oso kaltegarriak dira itsasoetako flora eta faunarako, eta erradioaktibitatea itsasotik pertsonenganaino heltzeko bide asko daude.

Bestalde, Estatu espainolak oso jokabide gomendagarria dauka gai garrantzitsu honetan. Aurten, Atzerri Ministerioak, Fernandez Ordoñez garai hartan ministroa zela, Greenpeace-ri zuzendutako eskutitz batean, isurkin hauek debekatzearen alde daukan joera gogortu baino ez zuela egingo azaltzen zuen. Espainiarekin batera, Finlandia, Islandia, eta Irlanda —lehendabizikoa bereziki— ere debekatzearen alde daude.

Nere jarrera eta euskal taldeena, argi eta garbi dago. Debekatu behar dira ez bakarrik jardura hauek, baizik eta gure biosistemen aurka egiten diren guztiak ere. Nork ez du nahi itsaso garbi bat eta osasunerako segurtasun eta babes? Bakarrik diruzaleak eta beren poltsikoak betetzeko edozein gauza egiteko prest daudenak.

Lehen migratzailea

Uda minean, lehendabizikoak abuztuaren hasieran eta gainontzekoak erdi aldera, kolore fiabar eta urdineko txoriak hasten dira nagusitzen Nafarroako zelai eta zuhaiztietan. Hegaletan dituzten mugimendu biolentoek izen franko eman diete toki gehienetan, eta txoritxo hauek dira migrazioa hasi deneko lehendabizikoetako seinalea. Gabe egiten du bidaia, ondoren egunez deskantsatu eta jan ahal izateko.

Garai honetan txori mota gehienak oraindik beren bigarren edo hirugarren errutean daude, baina Europako erdialdeko eta iparraldeko euli-txori beltzek hasia dute Afrikarako euren bidaia.

Hala ere, bere migrazioan goiztiarra izanda ere, bueltatzeko orduan azkenetakoa da, eta oraindik maiatza aldera ikus daiteke gure lurraldean. Arrak beltza dauka burua eta lepoaldea, eta kopeta eta bularraldea txuria.

Euliak ditu gustuko janaria, eta erreklamoa metalikoa da, arrunt ezaguna. Zuhaitzen zulotxoetan paratzen du kabia, eta noizbehinka, pareten zuloetan edota eraikin zaharretan.

CAROLINA DIAZ

Behin batean baserri batean behi, ahate, zaldi, asto, oilo, untxi eta txerri bat bere semearekin bizi ziren. Baita baserriaren jabea ere. Txerriak Meri izena zuen eta bere semeak Ziriko. Zirikok bi urte zituen, jabeak beste pertsona bati saldu zion bere ama. Ziriko oso triste geratu zen bere ama saldu zuelako. Bere amak esan zion:

—Ez jarri hain triste, askotan etorriko naiz zuek bisitatzen.

Untxitxoak esan zion:

—Hori, ez jarri hain triste Ziriko, nirekin eta gure lagunekin jolastuko duzulako.

Hurrengo goizean Meri eraman zuten. Lehendabizi Ziriko bere tokian gelditu zen triste samar baina pixkanaka-pixkanaka bere lagunekin jolasten hasi zen. Egunean zehar Ziriko bere amaz ahaztu zen baina gaua ailegatu zenean, berriz, oroitu zen eta bere tokian negarrez geratu zen.

Behia hurbildu zen Zikiroa-rengana lasaitzeko esatera baina Zirikok ez zion kasurik egin eta han gelditu zen negarrez.

Zirikoren istorioa

Gero negarrez lotan gelditu zen gau osorako. Hurrengo egunean bere lagunak goiz osoan Zirikorekin ibili ziren jolasten.

Gero, eguerdian jan eta arratsaldean, sorpresa! bere ama etorri zen, bisita bat egitera. Etorri zenean Zirikok esan zion:

—Ama!— eta amak esan zion:

—Ziriko! esan nizun bezala etorri naiz arratsalde osoa zurekin egotera. Baserriko guztiek arratsalde oso alai pasatu zuten.

Egun horretan bezala Zirikoren ama askotan etorri zen eta horregatik Ziriko ez zen hain triste sentitzen.

Horrela urteak pixkanaka-pixkanaka pasatzen joan ziren eta Ziriko handia egin zen. Egun batean Zirikoren jabeak egunkari batean irakurri zuen txerri lehiaketa bat antolatuko zela inguruko txerrikeri ederrean saritzeko. Orduan berak pentsatu zuen Ziriko eraman zezakeela. Egun hartan hasi zen Ziriko prestatzen. Lehendabizi jaten oso ongi ematen zion, gero egunean zehar bi aldiz garbitzen zuen eta lehiaketa egunerako txano polit bat erosi

zion. Gauza hauengatik Ziriko oso pozik zegoen eta bere ama Meri etorri zenean, jabearen asmoak kontatu zizkion. Eta bere amak esan zion oso ongi iruditzen zitzaioela.

Azkenean lehiaketa eguna ailegatu zen eta goizean goiz Ziriko eta bere jabea hirira joan ziren. Lehiaketara txerri asko bildu ziren, baina Ziriko bere txano berrarekin denen artean politena eta ederrena ageri zen. Jende asko hurbildu zen lehiaketa ikustera eta bereziki epaimahaikoak. Asko pentsatu ondoren, epaileek hau erabaki zuten: Ziriko zela hango txerrikeri hoberena. Egun hartan Meriren jabea ere lehiaketan zegoen.

Hurrengo egunean Zirikoren baserrira hurbildu zen, Ziriko erosteko asmoarekin. Diru asko eskaini ondoren azkenean erostea lortu zuen. Orduan Meriren jabeak Ziriko hartu eta bere baserrira eraman zuen eta ailegatu zirenean sekulako ustekabea eman zioten Meriri eta handik aurrera Ziriko eta bere ama oso pozik bizi ziren.

KAZKARROAN

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoren imotzen jasotako esatera zahar bat ageriko zaizu.

1. Izan

2. Altxatu

3. Baigorriko herria

4. Joko fisiko

5. Ikusten ez duena

B	7	A	2	D	9	B	2	D	3
B	4	A	3	A	10	D	8	D	5
B	6	A	5	D	6	D	2	B	5
A	6	B	2	B	10	A	1	A	4
B	9	A	4	B	8	A	9	D	1

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
A										
B										
D										

Jenero Xumekoak

Glosak, tempo di Italia

La mia dura (bortitz) sorte (patua) non credev'io (uste) regnasa Morte. Telepizzari bat akabatu dinat Iturralde y Suit kalean, Galerias-eko bidegurutzean. Ohartu nahi izan naizenerako nire kotxearen azpian sartua hunan. Sento i messi (mezulari) di morte, ove (dakusat) apparire (ageri) veggio i belli occhi (begiak) e folgorar (dirdiratu) da lunge (lekutan). Pizza bolonesa zeraman. Usaina ezagutu dinat. Ez zituen hamasei urte izanzen sikira. Bizitza ez da bat ere serioa bere gauzeekin. Quando 'l sol bagna in mar l'aurato carro, né di se me ha lasciato (ez dit laga) altro che 'l lume (motorraren argia baino).

JEREMIAS ERRO

Zaharrak Berri

Beharrak erakusten du atzeko alde nola dantzatu.

Lana nola egin.

Urdiain

Armiarmaren pausoa, euriaren asmoa.

Euriaren aurretik, armiarma handiak agertzen dira.

Baraibar

Kamareroak bezeroari:

—Zer nahi duzu?—

—Nahi, nahi, zoriontasuna nahi-ko nuke, poztasuna...

—Ez, zer desiratuko zenukeen!


—Desiratu... gauza asko...

—Ea zer hartu behar duzun!

—Zer dugu?

—Hemen, lan egiten.

Bizi Bizian



RADIO TXANTREA IRRATIA

Irrati komunitario berria

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Txantreak urte bukaerarako izango du bere irrati, auzokoek auzorako egina. Hori paratutako epeak betez gero, eta bultzatzailetak batek esaten duenez, «zorte apur batekin». Bitartean, 40 bat lagun bildu duen irrati ikastaroak arrakasta handia izan du, eta jendeak egindako proposamenek talde eragileak osatu zuen txostenari azken ukituak eman dizkiote.

Radio Txantrea Irratiaren proiektuak bi urte daramatza kalean, ia kasualitatez. Izan ere, bertako Zuen Irratiak porrot egiterakoan hasi zen honako hau, orduan eskeini bait zitzairen aurrekoen tresneria guztia. Zerbait polita egiteko aukera ikusi zuten eta irrati martxan paratzeko lanean hasi ziren.

Bi urtetik hona prozesua oso landua izan da, nolako irrati nahi zuten zehazteko. Horretarako ikerketa soziologikoa egin zuten txantrearren iritzia ezagutu ahal



Ikastaroan berrogei lagun bildu dira.

JOXE LACALLE

izateko, eta hortik hasi ziren lehendabiziko emaitzak. Horien arabera, gehiengoak gutxiegi zëritzen beste komunikabideetan auzoko berriei emandako garrantziari, eta denek auzorako komunikabide baten beharra nabarmentzen zuten.

Bigarren lantxo batean, egungo komunikabideen egoera az-

tertu zuen taldeak. «Ikusi genuen —azaldu du Jose Abaurreak— badagoela jendearekiko lotura eskasa, eta monopolioa gero eta handiagoa dela. Halaber, hasieratik baztertu genuen irrati librearen ideia, modelo bera ere krisi sakonean bait dago». Orobat, Iruñean egun dauden hiru irrati —Eguzki Irratia, Radio Berrio-

zar eta Radio Artemis— proiektua aztertu zuten. Guzti horrekin txosten bat prestatu zuten, eta auzokoei aurkeztu zieten, haien proposamenak eta iritziak ere biltzeko.

Guzti honen ondorioz, irrati komunitarioa izango da, hau da, ez irrati librea ez komertziala. Lehendabizikoekiko desberdintasuna eremuan datza, komunitarioak talde zehaztu bati dagozkionak —auzo bat, hiri bat...—. Bigarrenetikoa profesionaltasuna eta publizitatea arloetan daude desberdintasunak.

«Txantreak badu berezko noritasuna —dio Abaurreak—, eta lehen zeukan sasoi apurra galdu badu ere, praktikan, herri bat bezalakoa da. Orduan, irratiak auzoari buruzko gaiak jorratuko ditu, eta ez da profesionala izango. Irrati tailerra paratuko dugu martxan, eta bertan ikasiko dugu irrati egiten». Publizitatea, lealtasuna, euskara, eta abarreko arazoak, baina, oraindik konpondu gabe daude.

Ikastaro 'gomendagarria'

P.U. / IRUNEA

«Guztiz derrigorrezkoa ez, baina oso gomendagarria da irrati ikastaro bat antolatzea irrati, medioa bera, ongi menperatzeko, eta hortik etekin handiena atera ahal izateko», dio Jose Vicente Urabaienek. Beste zenbait ikastaroetan esperientziaduna, Radio Txantrea Irratiak osatu duen ikastaroen arduraduna da Urabaien, eta ikastaroa egitera astean hiru aldiz hurbiltzen diren 40 lagunengan aurkitu duen gogo ona nabarmendu du balorazio bat egitean. «Badute gogoia ez hainbeste irrati aritzeko nola auzoari zerbitzu bat emateko, eta hori oso garrantzitsua eta arraroa da garai hauetan», adierazi du harro.

Ikastaroa hilaren 14ean hasi zen, eta, 30 ordukoa, urriaren 8a arte iraungo du. Bertan, zenbait modulotan banatuta, irratiari buruzko oinarritzko teoria eta praktika euren gaitasunak dute gero kazetariak.

Horrela, irratiaren eginkizuna komunikabideen arloan; irratiaren mintzaira; tresneria; gidoiak eta irratsaio motak; taldearen arteko funtzioak eta artxiboa gaiak landuko dira, ez teoria hutsean baina praktikaren bidez. «Hamar minututan azaltzen diet gaiaren azala —dio Urabaienek—, eta geroago ariketa praktikoak hasten dira egiten. Horrela praktika bidez ikasten dute teoria».

IRRATIA IRUDIMENAREN MUNDUA

Ikastaro hauek irrati librea, komertziala zein komunitarioa egiteko balio dutela dio Urabaienek, «baina azken joere era komunitarioa dute ikusmiran, hau da, taldean egindako irrati bat, eta gizarte multzo bati zuzenduta».

Irratiaren defenditzailea da Urabaien beste komunikabideen aurrean. «Iruñiaren munduan gaude, eta hori dela eta, irudimena bera galdu egin dugu, telebistak dena egin ematen digulako. Irratiaren bidez, bakoitzak bere mundua osa dezake ahots edo soinu edo ideia bat entzutean, eta sormen lan handia egiten da. Gainera, irratiak da komunikabide mota barnekoiena, lokutorea eta entzulearen arteko lotura berezia sortzen bait da».

Hau da lehendabiziko ikastaroa, baina taldekideen artean badago asmoa gehiago ere sakontzeko. Horrela, irrati sartuko diren guztiek antzeko esperientzia jaso behar izango dute, eta horretarako izango da auzoko ikastetxeen artean eratu nahi den irrati tailerra. Bestalde, aurrera begira, beste ikastaro trinkoagoak ere egiteko nahia dago, gai zehatzagoi buruz: elkarrizketak, magazinak, irratsaio bereziak, eta abar.

Napartheid taldea

komikigileak

I parralde eta mendebaldeko komikigileek gogo berriak ekarri dituzte 'Napartheid' komiki aldizkarira. Argitalpena sendotze eta guapotze bidean dagoela eta, Komikijaia ospatuko dute 'Napartheid' kideek urriaren hiruan Arra-

saten. Aurkezpenaren ostean —eta barrun plater galanta baten aurrean— Asisko eta Pernan aldizkariko aspaldi-ko 'parthaideekin' 'Napartheid' iragan eta orainaz hitzegin genuen eta Xabier 'parthaide' hasberriarekin geroaz jardun genuen.

«Umore iraunkorra dugu»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

EGUNKARIA.— Zer egiten du Xabier Arrieta hamasei urteko gazte lesakar batek 'Napartheid' agure zahar hauekin?

XABIER ARRIETA.— Kasualitatez sartu nintzen. Asisko eta beste bi buruntziek eman zuten hitzaldi baten amaieran, Asisko hurbildu zitzaidan eta 'Napartheid' sar-tzea proposatu zidan. Segidan baietz esan nion. Orduan jakin izan banu 'Napartheid' zer zen hobeto pentsatuko nuen.

EGUNKARIA.— 'Napartheid' sortu zenean nafar komikigileek nafar gaiak jorratuz egiten zuten aldizkaria zen. Egun, Euskal Herriko herrialde guztietako komikigileak biltzen ditu. Nola gertatu da aldaketa hau?

ASISKO URMENETA.— Lehen alea Vascuenceren Legearen aurkako manifa baterako espreski atera genuen, eta gai nagusia horixe izan zen. Bigarren eta hirugarren aleetan Iparraldeko gaiak jorratzen hasi ginen. Gai nagusien bidez hedatzen joan ginen, eta egun Euskal Herrian puntan dauden gaiak jorratzen ditugu. Mendebalde eta Iparraldeko komikigileek gogo berriak ekarri dituzte aldizkarira.

EGUNKARIA.— Bi aste barru zortzigarren alea plazaratuko duzue. Zer ekarriko du bere barnean ale berri horrek?

PERNAN GOÑI.— Berrikuntza ugari izango dira, ale bikoitza izango bait da. Estreineko aldiz zortzi orrialde koloretan sartuko ditugu... Ez da kapritxo hutsa. Kontua da Iruñeko Udalak Rosa Silvaren komikia zentsuratu zuela, udaletxeak berak antolatutako komiki lehiaketa irabazi ostean, komikia 'bahitu' egin zuten, eta oraindik ez dute kalera-tatu. Guk komikia plazaratu nahi



Xabier Arrieta gazteak gogo berriak dakartza 'Napartheid'era

JOXE LACALLE

dugu, jendeak erabaki dezan istorioa horren porno eta bortitza den ala ez.

EGUNKARIA.— Nondik ateratzen duzue ale bakoitza kalera-tzeko behar den dirua?

ASISKO.— Normalean azken alearen salmentekin azkenaurrena ordaintzen dugu. Orain arte jaso dugun dirulaguntza bakarra Nafarroako Gobernutik izan da eta nahiko txikia gainera. Principe de Viana erakundean behin eta berriz saiatu gara, gure txostenak eta eskariak aurkeztu ditugu, baino ukatu egin digute dirulaguntza, beraz erakunde honetako arduradunei euskara eta komikiak bost axola zaizkie.

EGUNKARIA.— Zeintzuk dira 'Napartheid' helburuak?

PERNAN.— Euskal komikia bultzatu, eta gero eta jende gehiago engainatu gurekin argitaratzeko. Aldi berean autogestionarioa izatea, bai eta guk euskal komikien banatzaile bat eratzea ere.

EGUNKARIA.— Eta zer da 'Napartheid' gaur egun?

ASISKO.— Herri honek inprobisatzeko kriston ahalmena dauka, bertsolariak horren lekuko. Umore izpiritu hori batzuetan ez da gauzatzen, bapatean sortzen da, eta bapatean desagertzen da. Gurea iraunkorragoa da. Umorezko argitalpenen arloan hutsik zegoen toki bat betetzen dugu,

edo hori da gure asmoa behintzat.

EGUNKARIA.— Urriaren hiruan Komikijaia ospatuko duzue Arrasaten. Zer dela eta jai hori?

XABIER.— 'Napartheid' sendotze, bizkortze eta guapotze bidean dagoelako adierazle izanena da Arrasaten egingen dugun Komikijaia. Urtero horrelako zer-bait egiten saiatuko gara. Arratsalde partean hasiko da jaiak, umeentzako ekitaldiekin, berriantzako pastoraltxoa eta guzti. Ilunabarrean Ezitxu Arozena eta Sabier Silveira arituko dira, eta gauean, herri afaria eta vikingoaren ostean, musika jaialdia izanen da Patagonia, Balerdi-Balerdi, Pottoka, ehun kilo.

NOSKI
JATOR

ZVLDI ERDA

Noski JATORREKAITONA ETA LEHENGUSUEK ZAINZEN ZITUENEOA...

